




2013-2016rako Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea egiteko prozesuan
herritarrek parte hartzeko prozesua


Eragile adituei eginiko inkestaren emaitzak

Eragile adituentzako inkestak intereseko 9 kolektibo hartu ditu kontuan. Guztira 95 inkesta bildu dira, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan




Eragile adituen % 81en ustez, egokia da maizterrek kenkariak edukitzea PFEZn. Horretaz gain, % 61en ustez, handitu egin beharko lirateke

Egokia iruditzen al zaizu maizterrentzat PFEZko kenkariak egotea higiezin-errendamenduko kontzeptuan?




Egokiak iruditzen bazaizkizu, oraindutako errenten gaineko zer desgrabazio motatan kokatuko zenituzke?



- ❑ Maizterrentzako PFEZko kenkariak egoki deritzen eragileen ehunekoa 7 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 88).
- ❑ Egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Egokiak direla gutxien adierazten duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 67 bi kasutan).

- ❑ PFEZko kenkariak handitu beharko lituzketela uste duten eragileen ehunekoa 4 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 65).
- ❑ Handitu beharrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 75).
- ❑ Handitu beharrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 22).

Abal publikoetako lerroek, gazteek alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko berme-baldintzak bete ahal izatea xede dutenek alegia, babes handia dute (5 edo gehiagoko balorazioa ematen diete % 93k)




- ❑ Gazteek alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko berme-baldintzak bete ahal izan ditzaten Eusko Jaurlaritzak abal publikoen lerro bat ezartzea interesgarritzat jotzen duten eragileen ehunekoa 4 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (herritarren % 89k ematen diote 5eko balorazio bat gutxienez).
- ❑ Abal publikoen lerro horri adostasun handiena agertzen dioten eragileak hauek dira: Udalak/Foru Aldundiak: «Hirigintza Arloa/Birgaitzeko Sozietateak», «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa» eta «Proiektugileak eta Arkitektoak» (% 100ek ematen diote 5eko balorazio bat gutxienez).
- ❑ Abal publikoen lerro horri adostasun txikiena agertzen dioten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 66k ematen diote 5eko balorazio bat gutxienez).

Eragileek Bizigune programa ezagutzen dute (% 84), eta alokairua sustatzeko interesgarritzat jotzen dute (% 88)




- ❑ Bizigune programa ezagutzen duten eragileen ehunekoak 9 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 75).
- ❑ Programa hori gehien ezagutzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa» (% 100).
- ❑ Programa hori gutxien ezagutzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 50)





- ❑ Bizigune programa interesgarritzat jotzen duten eragileen ehunekoak 2 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 86).
- ❑ Interesgarritzat gehien jotzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa», «Ekonomialariak» eta «Unibertsitateak/Ikerketako beste eragile batzuk» (% 100).
- ❑ Interesgarritzat gutxien jotzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 50).

Gehienek ustez (% 58), egokia da jabeek jasotzen dituzten gehieneko errentak 600 eurotik 450 eurora murrizteko neurria




- Jabeek jasotzen dituzten gehieneko errentak 600 eurotik 450 eurora murrizteko neurria egokitzat jotzen duten eragileen ehunekoak 15 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 73).
- Neurri horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Neurri horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 0).

ASAP programak ere lortzen du babes handia (% 84), baina eragileen % 40k baino ez omen du ezagutzen




- ❑ ASAP programa ezagutzen duten eragileen ehunekoa 10 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 30).
- ❑ Programa hori gehien ezagutzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» eta «Ekonomialariak» (% 50).
- ❑ Programa hori gutxien ezagutzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 0).
- ❑ ASAP programa interesgarritzat jotzen duten eragileen ehunekoa 2 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 82).
- ❑ Interesgarritzat gehien jotzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa», «Gizarte arloko elkarteak», «Ekonomialariak» (% 100).
- ❑ Interesgarritzat gutxien jotzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 0).

Eragileen % 80k egokizat jotzen dute zerga-neurriak ezartzea hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzea saritzeko



- Hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzea saritzen duten zerga-neurriak ezartzeari egoki deritzoten eragileen ehunekoak 7 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 87).
- Neurri horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak», «Ekonomialariak» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Neurri horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 66).

Eragileen % 93ren ustez, babes ofizialeko etxebizitzak alokairukoa edo lehentasunez alokairukoa izan beharko luke




- Babes ofizialeko etxebizitzak alokairukoa edo lehentasunez alokairukoa izan beharko lukeela uste duten eragileen ehunekoa 16 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 77).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak», «Ekonomialariak» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 66).

Eragile gehienek ustez (% 67), babestutako alokairuaren gehieneko errentak sozialki eskuratzeko moduan daude; nolahi ere, gehieneko errentak diru-sarreraren % 25era (% 44) edo muga hori baino gutxiagora (% 24) murriztearen alde daude % 70




- ❑ Babestutako alokairuaren gehieneko errentak sozialki eskuratzeko moduan daudela uste duten eragileen ehunekoa 20 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 47).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» (% 44).




- ❑ Babestutako alokairuaren gehieneko errentaren ehunekoa murriztea interesgarritzat jotzen duten eragileen ehunekoa 13 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 83).
- ❑ Hori murriztearekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa» (% 91)
- ❑ Hori murriztearekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 33).

Alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren eskariaren joerari dagokionez, geroan ere jarraituko duela uste dute gehienek (% 56), baina jarrera hori ez da homogenea, joera zerbait koitunturala era badelako % 44ren iritziz





- ❑ Alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren eskariak bere horretan jarraituko duela uste duten eragileen ehunekoa herritarrenen antzekoa da (% 55).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» (% 80).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 30).

Eragileen % 42k baino ez dute babesten etxebizitza-eskatzaileen eta administrazioaren artean jabetza/finantzaketa % 50ean banatzen duen eredua



- ❑ Etxebizitza-eskatzaileen eta administrazioaren artean jabetza/finantzaketa % 50ean banatzen duen eredua babesten duten eragileen ehunekoak 42 puntu txikiagoa da herritarren artean baino (% 84).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 17).

Bizikidetza-unitateko tipologia berri batzuek (adibidez, 2 adiskide) BOEko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko aukera: eragileen % 90ek babesten dute, alokairuaren kasuan; jabetzan izanez gero, berriz, % 51ek



- ❑ Bizikidetza-unitate berriek alokairuko BOE etxebizitza bat eskuratu ahal izatearekin ados dauden eragileen ehunekoa 11 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 79).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Hirigintza Arloa/Birgaitzeko Sozietateak», «Gizarte arloko elkarteak», «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 60).
- ❑ Bizikidetza-unitate berriek jabetzako BOE etxebizitza bat eskuratu ahal izatearekin ados dauden eragileen ehunekoa 8 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 59).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100)
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 17).

Diapositiva 13


Borxa1

Bi grafiko hauetan ezin da zutabeen azpiko testua aldatu (Nada adecuado / Poco Adecuado / Bastante adecuado / Muy adecuado), hau da itzulpena bietan:

Batere ez egokia / Ez oso egokia / Nahikoa egokia / Oso egokia


Borxa Encinas; 20/11/2013

Babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko bide gisa erosteko aukera ematen duen alokairua babesten dute eragileen % 52k




- Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko bide gisa, erosteko aukera ematen duen alokairua babesten duten eragileen ehunekoa 30 puntu txikiagoa da herritarren artean baino (% 82).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 33).

Eragile gehienen ustez, adierazitako alokairu eta erosketako hiru modalitateetan eskatutako gehieneko diru-sarrerak egokiak dira




- ❑ Erregimen bereziko BOEko alokairuan eta erosketan eskatutako gehieneko diru-sarrerak egokitzat jotzen dituzten eragileen ehunekoak 3 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 54).
- ❑ Egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» (% 0).
- ❑ Erregimen orokorreko BOE eta zuzkidura bizitokiaren alokairuan eta erosketan eskatutako gehieneko diru-sarrerak egokitzat jotzen dituzten eragileen ehunekoak puntu bat handiagoa da herritarren artekoa baino (% 42), eta handiegizat joz gero, 14 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 49).
- ❑ Egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 67).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 0).
- ❑ Erregimen orokorreko etxebizitza tasatu eta autonomikoen alokairuan eta erosketan eskatutako gehieneko diru-sarrerak egokitzat jotzen dituzten eragileen ehunekoak 6 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 37), eta handiegizat joz gero, 15 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 56).
- ❑ Egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Hirigintza Arloa/ Birgaitzeko Sozietateak» (% 55).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 0).

Eragileen ustez, egokiak dira adierazitako babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu eta erosketako hiru modalitateetan eskatutako gutxieneko diru-sarrerak



- ❑ Erregimen bereziko BOEko alokairuan eta erosketan eskatutako gutxieneko diru-sarrerak egokitzat jotzen dituzten eragileen ehunekoak 10 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 71).
- ❑ Egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 20).
- ❑ Erregimen orokorreko BOE eta zuzkidura-bizitokiaren alokairuan eta erosketan eskatutako gutxieneko diru-sarrerak egokitzat jotzen dituzten eragileen ehunekoak 10 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 69).
- ❑ Egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 20).
- ❑ Etxebizitza tasatu autonomikoen alokairuan eta erosketan eskatutako gutxieneko diru-sarrerak egokitzat jotzen dituzten eragileen ehunekoak 7 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 62).
- ❑ Egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 75).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 0).


Eragileen ustez (% 62), babes ofizialeko etxebizitzek Etxebideko eskatzaileen araberako prezio edo errenta egokia al dute?



- Egokitzen dituzten eragileen ehunekoak 17 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 45).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» (% 29).


Eragile gehienen ustez (% 54), erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza erosteko orduan, positiboki barematu beharko lirateke etxebizitza beharrik handiena duten kolektiboak

Zure ustez, etxebizitza-premiarik handiena duten kolektiboak positiboan barematu beharko lirateke, erosketa-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzak eskura ditzaten?




- Horrekin ados dauden eragileen ehunekoak 18 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 72).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 17).

Eragile gehienen ustez (% 77), Eusko Jaurlaritzaren ikuskapen-sistema, babes ofizialeko etxebizitzaren alorreko iruzurraren ingurukoa, ez da eraginkorra



- Oso eraginkorra ez dela jotzen duten eragileen ehunekoa 4 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 73).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 33).

Eragile gehienen ustez, beharrezkoa da etxebizitza motak beste bizikidetzta-unitate batzuen beharretara egokitzea, hala nola leku gehiago behar duten familia ugarienetara (% 85), gazteen eta zaharren arteko bizikidetzarenetara (% 82) eta zaintza partekatuenetara (% 74)



- ❑ Etxebizitza motak hainbat bizikidetzta-unitatetara («zaintza partekatuta», adibidez) egokitu behar direla uste duten eragileen ehunekoa 2 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 72).
- ❑ Hori beharrezkoa dela gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- ❑ Hori beharrezkoa dela gutxien adierazten duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 50).

- ❑ Etxebizitza motak hainbat bizikidetzta-unitatetara («espazio handiagoa behar duten familia ugarietara», adibidez) egokitu behar direla uste duten eragileen ehunekoa 2 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 83).
- ❑ Hori beharrezkoa dela gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» eta «Ekonomialariak» (% 100).
- ❑ Hori beharrezkoa dela gutxien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 50).

- ❑ Etxebizitza motak hainbat bizikidetzta-unitatetara («gazteen eta zaharren arteko bizikidetzara», adibidez) egokitu behar direla uste duten eragileen ehunekoa 4 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 78).
- ❑ Hori beharrezkoa dela gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- ❑ Hori beharrezkoa dela gutxien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 50).

Eragile gehienen ustez, Euskadin etxebizitza huts asko dago (% 71), eta Euskadin hutsik dauden etxebizitzak nolabait zergapetu beharko lituzkete (% 57)




- ❑ Euskadin hutsik dauden etxebizitza asko daudela uste duten eragileen ehunekoa 25 puntu txikiagoa da herritarren artean baino (% 96).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 33).



- ❑ Euskadin hutsik dauden etxebizitzak nolabait zergapetu beharko lituzketela uste duten eragileen ehunekoa 16 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 73).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legegileak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 33).


Gehienen ustez (% 79), hutsik dauden etxebizitzak babestutako alokairuan eskaintzeak etxebizitza eskuratzeko arazoei aurre egiten lagunduko luke. Era berean, % 90ei ondo iruditzen zaie Eusko Jaurlaritzak hutsik dauden etxebizitzekin indartzea alokairua sustatzeko laguntza-programak



- ❑ Hutsik dauden etxebizitzak babestutako alokairuan eskaintzeak etxebizitza eskuratzeko arazoei aurre egiten lagunduko lukeela uste duten eragileen ehunekoa 8 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 87).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: «Gizarte Ongizate Arloa» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 42).


- ❑ Eusko Jaurlaritzak hutsik dauden etxebizitzekin alokatzeko laguntza-programak indartzeari egoki deritzoten eragileen ehunekoa 2 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 92).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa», «Gizarte arloko elkarteak», «Proiektugileak eta arkitektoak», «Etxegileak eta sustatzaileak» eta «Unibertsitateak/Beste ikerketa-eragile batzuk» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 75).

Birgaitzeko laguntzen lehentasunezko helburua irisgarritasun-elementuek izan beharko lukete (eragileen % 97k aipatu dituzte), eta ondoren, elementu komunek (% 84), eraginkortasun energetikoak (% 78) eta, azkenik, elementu pribatiboek (% 56)




- Irisgarritasun-elementuak birgaitzeko laguntzak lehentasunezkoztat jotzen dituzten eragileen ehunekoa 4 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 93).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: «Hirigintza Arloa/Birgaitzeko Sozietateak», «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa», «Gizarte arloko elkarteak», «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» (% 83).
- Elementu komunak birgaitzeko laguntzak lehentasunezkoztat jotzen dituzten eragileen ehunekoa 2 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 82).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Ekonomialariak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 67).
- Elementu pribatiboak birgaitzeko laguntzak lehentasunezkoztat jotzen dituzten eragileen ehunekoa 21 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 77).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 0).
- Eraginkortasun energetikoa birgaitzeko laguntzak lehentasunezkoztat jotzen dituzten eragileen ehunekoa 7 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 85).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- Hori beharrezkoa dela gutxien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 50).

Adierazitako ezein arlotan ez dago adostasun argirik birgaitzeko diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak egokiak diren edo ez azaltzeko orduan; ia kopuru berean jotzen dituzte ez-nahikoak eta egokiak.




- Nahikoak ez direla jotzen duten eragileen ehunekoa 13 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 38).
- Nahikoak ez direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Nahikoak ez direla gutxien adierazten duten eragileak «legelariak» dira (% 36).
- Nahikoak ez direla jotzen duten eragileen ehunekoa 7 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 43).
- Nahikoak ez direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» eta «Ekonomialariak» (% 67).
- Nahikoak ez direla gutxien adierazten duten eragileak «Udalak/Foru Aldundiak» dira: Hirigintza Arloa/ Birgaitzeko Sozietateak» (% 35).
- Nahikoak ez direla jotzen duten eragileen ehunekoa 3 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 45).
- Nahikoak ez direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- Nahikoak ez direla gutxien adierazten duten eragileak «legelariak» dira (% 27).

Eragile gehienen ustez (% 64), egokiak dira eraikinetako inguratzaile termikoa hobetzeko lanetarako gehieneko laguntzak




- Egokitzat jotzen dituzten eragileen ehunekoak 10 puntu txikiagoa da herritarren kasuan baino (% 74).
- Gehieneko laguntzak egokiak direla gehien adierazten duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» (% 90).
- Gehieneko laguntzak egokiak direla gutxien adierazten duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak» eta «Unibertsitateak/Beste ikerketa-eragile batzuk» (% 50).

Eragileen gehiengoaren ustez (% 90), degradatutako eremuetan, lehentasunezkoak dira inklusio/kohesioko programak, birgaitze fisikoko programak osatzen dituztenak




- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Ekonomialariak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 66).

Eragile gehienek dakite zer den Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (% 89), eta Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzarekin ados daude (% 88)




- ❑ EIT zer den ezagutzen duten eragileen ehunekoa 32 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 57).
- ❑ Hori gehien ezagutzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa», «Legelariak», «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- ❑ Hori gutxien ezagutzen duten eragileak hauek dira: «Gizarte arloko elkarteak» (% 70).




- ❑ EIT diruz laguntzarekin ados dauden eragileen ehunekoa 5 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 93).
- ❑ Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Udalak/Foru Aldundiak: Gizarte Ongizate Arloa», «Ekonomialariak» eta «Proiektugileak eta arkitektoak» (% 100).
- ❑ Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 67).

Eragile gehienen ustez (% 81), beharrezkoa da hiriak birgaitzeko eta berroneratzeko zerga-pizgarriak ezartzea




- Hiriak birgaitzeko eta berroneratzeko zerga-pizgarriak ezartzea beharrezkoa dela uste duten eragileen ehunekoak puntu bat txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 82).
- Horrekin adostasun handiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Proiektugileak eta arkitektoak» eta «Etxegileak eta sustatzaileak» (% 100).
- Horrekin adostasun txikiena agertzen duten eragileak hauek dira: «Legelariak» (% 58).

Eragile gehienen ustez (% 80), interesgarria EAEko herritarrek etxebizitzaren inguruan dituzten iritziak eta proposamenak ezagutzeko ezarritako parte-hartze prozesu hau; hala ere, askoren ustez (% 70), herritarren parte-hartze prozesuek eragin txikia dute edo inolako eraginik ez dute




- ❑ Herritarren parte-hartze prozesuek eragin txikia dutela edo ez dutela inolako eraginik uste duten eragileen ehunekoa 3 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 73).



- ❑ Parte hartzeko prozesu hori interesgarritzat jotzen duten eragileen ehunekoa 7 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 87).

Eragileek parte-hartze prozesuarekin duten gogobetetze-maila altua da, baloratutako alderdiak kontuan hartuz gero: Iritziak adierazteko askatasuna (% 84); erabilitako plataformaren sinpletasuna eta argitasuna (% 76), eta gardentasuna eta emandako informazioa (% 68)




□ Gardentasunaren eta emandako informazioaren gaineko balorazio ona egiten duten eragileen ehunekoa 5 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 73).

□ Plataformaren sinpletasun eta argitasunaren gaineko balorazio ona egiten duten eragileen ehunekoa 4 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 80).


□ Iritziak adierazteko askatasunaren gaineko balorazio ona egiten duten eragileen ehunekoa 3 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 87).

Parte hartzeko sekzio guztiak baliagarriak direla diote: «Eman iritzia – Inkestak» (% 66), «Dokumentu interesgarriak» (% 66), «Komentatu eta hartu parte – Foroak» (% 64) eta «Iradoki ideia berriak – Proposamenak» (% 63)




- ❑ «Komentatu eta hartu parte – Foroak» sekzioa baliagarria dela esaten duten eragileen ehunekoa 8 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 72).
- ❑ «Iradoki ideia berriak – Proposamenak» sekzioa baliagarria dela esaten duten eragileen ehunekoa 15 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 78).
- ❑ «Eman iritzia – Inkestak» sekzioa baliagarria dela esaten duten eragileen ehunekoa 13 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 79).
- ❑ «Dokumentu interesgarriak» sekzioa baliagarria dela esaten duten eragileen ehunekoa 10 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 76).

Eragile gehienek ustez, parte hartzeko prozesu honetan adierazitako iritziek eta proposamenek eragin txikia izango dute Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen azken idazketan (% 57); nolana ere, era horretako prozesuek izaera iraunkorra eduki behar dutela uste dute gehienek




- ❑ Parte hartzeko prozesu honetan adierazitako iritziek eta proposamenek Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen azken idazketan eragin txikia izango dutela uste duten eragileen ehunekoa 18 puntu txikiagoa da herritarren artekoa baino (% 75).




- ❑ Era horretako prozesuek izaera iraunkorra eduki behar dutela uste duten eragileen ehunekoa 5 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 55).

Eragileen % 37k komunikazio irekirako dauden kanalak erabiltzen dituzte Etxebiderekin komunikatzeko



- Komunikazio irekirako dauden kanalen bidez Etxebiderekin komunikatzen diren eragileen ehunekoa 11 puntu handiagoa da herritarren artekoa baino (% 48).

Zuzenean zerbitzuko hiru kanalak dira eragileek hobekien baloratzen dituzten komunikazio-kanalak: zuzeneko arreta, telefonozko arreta eta Interneteko arreta



- ❑ Eusko Jaurlaritzan etxebizitzari dagokionez dauden komunikazio-kanalen gainean eragileek egiten duten balorazioa herritarrek emandakoaren oso antzekoa da; azken horiena hobexeagoa da, dena den.